

**INDARKERIA MATXISTATIK BIZIRIK
ATERATAKOEN ETA BIKTIMEN
ARTATZERAKO ETA ERANTZUN
PUBLIKORAKO AKORDIO POLITIKOA**

Andoaino Udala



2019ko otsaila

Edukiak

SARRERA	3
1. ZIOEN AZALPENA	5
2. ANDOAINEN DAUDEN ZERBITZU ETA BALIABIDEAK ETA ERABILTZAILEEN BALORAZIOA	7
2.1. Zerbitzuen tratua eta eraginkortasuna	8
3. ERREPARAZIO PRINTZIPIOA ETA KONPROMEZU POLITIKOA	13
3.1. Esku-hartze indibiduala	13
3.2. Esku-hartze kolektiboa	14
3.3. Esku-hartze publikoa	15
4.2. Erantzuna eraikitze oinarriak	19
4.3. Indarkeria sexistaren aurkako kultura suspertzea	20
4.4. Erantzun eszenatokiak	21
4.5. Protokoloaren hedapena 1, 2 eta 3 eszenatokietan	22
1. ERANSKINA	26
EMAKUME BIKTIMEN LAGUNTZA LANEKO PROZESUA:	26
ERABILITAKO METODOLOGIA	26

SARRERA

Andoaingo Udalak 2017an zehar ANDOAINGO EGOERAREN DIAGNOSTIKO bat garatu du. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA. Tresna honek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren udal prebentzio politikak berrikusteko eta genero indarkeria egoerei aurre egiten dieten emakume biktima zein beraien seme-alabekin zerbitzu publikoen artatze eta esku-hartze sistema berrikusteko balio izan du.

Dokumentuan zehar **biktima** kontzeptua emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria aurreikusi eta borrokatzeko europar Hitzarmenak definitzen duen zentzuan erabiliko dugu (**Istanbulgo Hitzarmena**), 2011koa dena¹ eta Estatu espainolak 2014ko abuztuan berretsitakoa.

Biktima da bere giza eskubideen urraketa bat sufritzen duen eta jasaten dituen indarkeria ekintzak generoan oinarritzen diren pertsona fisiko oro. Ekintza hauek emakumeei ondorengoak eragiten dizkiete edo eragin ahal dizkie: izaera fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoko kalteak nahiz pairamenak, ekintza hauek gauzatzearen mehatxuak, hertsatzeak nahiz bizitza publiko edo pribatuan askatasuna arbitrarioki kentzea barne.

Diagnostikoak genero indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren ezaugarrien kontaketa bat egin zuen, estatu mailan indarrean dagoen legedian ulertzen diren moduan, eta modu parte hartzailean burutu zen herriko biktimen artatzeko zerbitzuetako pertsonal teknikoarekin. Adostasun handiarekin *artatze integraleko eredu* bat sortzeko beharrezana azpimarratu zen, tartean dauden baliabide eta instituzio guztien arteko koordinazioa hobetzeko. Honen helburua emakumeen aurkako indarkeria matxistaren analisi marko bateratu bat edukitzea izanik, era berean bideratze eta jarraipen mekanismoak azkartzea ahalbidetuko lukeena. Ondoren, 2018an, batzorde tekniko batek emakumeen artatzea hobetzeko koordinazio protokolo bat garatu zuen.

Dokumentu hau akordio politiko bat eta konpromezu bat da; bai orain arte egindako lan teknikoak babesteko eta baita politikariei dagozkien eginbeharrak abian jartzeko.

¹ Europako lehen tresna juridiko loteslea emakumeen aurkako genero eta etxeko indarkeriaren gaian.

Andoainen, 2019ko apirilaren 4an

1. ZIOEN AZALPENA

Indarkeria matxista deritzogu emakumeen aurkako (emakumeak kolektibotzat joaz eta bereizi gabe) eta heteroaraua hausten duten gizon-emakumeen kontrako kontrol eta diskriminazio moduei. Kontrol hau gizonezkoek eta izaera maskulinoak emakumeekiko eta izaera femeninoarekiko daukaten gainjartzea oinarri daukan egitura sozial hierarkikoan sustengatzen da; hau normalizatu eta justifikatzen duen kultura baten baitan gertatzen delarik. Indarkeria matxista pertsonen arteko harremanetan ager daiteke larderiako jokaeren bidez, hauek, leun edo bortitzak izan daitezke, hainbat formatan adieraz daitezke (fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa etab.) eta hainbat esparrutan eragin dezakete (arloan pribatuan, publikoan eta birtualean).

Indarkeria honen ondorioak askotarikoak izan daitezke eta biktimei epe labur, erdi edo luzeko edozelako kalteak eragin diezaiekete, bai berehalakoan edo baita denboraldi batera ere. Zuzenean, zeharka eta sarritan oharkabean, injustiziazko gizarte harremanak produzitu eta erreproduzitzen dituzte, sozialki esleitutako pribilejio maskulinoei (zeinak gizonezko gehienek onartzen dituzten) eskubide izaera emanaz; hala nola emakumeenganako, umeenganako eta orokorrean, arau heteropatriarkalera egokitzen ez diren pertsonenganako kontrola eta boterea.

- Euskadin, emakume taldeek eta **mugimendu feministak** eginiko lan eta esfortzuari esker, indarkeria matxista arazo publiko gisa onartua izan da, eta ez arazo pribatu gisa. Horregatik politika publikoentzako erronka handia da ikusmolde honetara egokitzen diren neurri eta esku-hartzeak diseinatzea.
- Emakumeek, jasaten duten indarkeria toleratzera bultzatzen dituzten eredu tradizioaletatik haratago, beren bizitza nola bizi nahi duten erabakitzeke aukera eta gaitasunen handitze gisa jo behar da **ahalduntzea**.
- Emakume eta umeen **giza eskubideen** jarduera eraginkorrean indarkeria matxistak eragin handia daukala esateak, estatu eta instituzioen jarduera erantzukizun handiko espazio batean jartzea eta **babes jarrai eta konprometitu** baten konpromisoa hartzea suposatzen du.

Zerbitzu guztietan indarkeriak forma instrumental gisa dauzkan ondorioak eta biktimei eragiten dien oinazea modu egokian artatzeaz gain, indarkeriaren izaera

espresioa ere artatu behar da, eragiten dituen kalte indibidual, kolektibo eta sozialak erreparatuz. Hori modu egokian lortuko da soilik emakumeen eta indarkeria matxistaren biktimen Giza Eskubideen irakurketa feminista bat eginez.

Berehalako ondorio zuzen bat, biktimak "eskubideen titular" kontsideratuz artatze formak eta prozedurak egokitzea da, ez baitira inork esleitutako egiaztagiri baten bidez onuradunak diren erabiltzaile hutsak. Izan ere, Estatuak bere maila guztietan (kasu honetan udalerrri mailan eta bere eginbeharretan) aipatutako eskubideak bermatu behar dituen "behartutako instituzio" bezala kokatzen da.

Biktimak laguntza behar duten, eta batzuetan beraiekin adostu ez diren norabideetan aritzeko derrigortuta dauden subjektu zaugarri gisa hartzen dituzten artapen eta esku-hartze formak gainditu behar dituen ikuspuntua izan behar dela ulertzen dugu. Hala ere, protokolo honen helburu bat entitate guztietan emakumeen agentzia² sustatuko duten langileak edukitzea da, emakume bakoitzaren abiapuntutik beraien ahalduzko prozesurako baldintzak eta baliabideak lortuko dizkietenak.

Lan hau abian jartzeko motibazio nagusiak, zerbitzu egokien sare bat sortzea lortzea (zeina indarkeria matxistak bere maila guztietan eta bere biktima guztiekiko dauzkan ondorioekiko ulerkorra den) eta Giza Eskubideekiko errespetuzko jarrera daukan biztanleria (zeinak urratutako eskubideak kolektiboki aitortu eta erreparatzen dituen) lortzea izan dira.

² Emakumeek boterea har dezaten egin beharreko funtsezko pausoa da; beren premien, interesen eta eskubideen alde borrokatuz. "Agentzia" kontzeptua pertsona batek edo talde batek bere helburu propioak definitzeko eta eskuratzeko jarduteko duen ahalmenari dagokio. Emakumeen bizia hobetzeko emakumeen mobilizazioan enfasia jartzen duen kontzeptua da honako hau; beraz, horren aldeko apustu bat egiten du, hau kontrajarriz bestelako agente edo Estatuak emakumeei beraien iritzia aintzat hartu gabe diseinatutako zerbitzu edo baliabideak eskuratzeko itxaroten egoteko jarrerari.

2. ANDOAINEN DAUDEN ZERBITZU ETA BALIABIDEAK ETA ERABILTZAILEEN BALORAZIOA³

Indarkeria matxistari aurre egin dieten emakumeentzako zerbitzu publiko, municipal, foral, autonomiko eta estatal sorta bat dago, emakume hauek zirkunstantzia anitzen eta erabakitzeko momentuaren arabera erabiliko dituztenak. Kasu batzuetan zerbitzu bat baino gehiagotara joko dute jarraian, eta beste kasu batzuetan zerbitzu bat baino gehiago modu paraleloan erabiliko dituzte, baita denboran zehar modu ez jarraian ere. Ibilbide hauek dira zerbitzu publikoek ezagutzen dituztenak, baina ziurrenik zerbitzu hauetara jotzen ez duten emakumeen ibilbideak ere egongo dira, indarkeria egoeratik baliabide pribatuak erabiliz edota laguntza profesionalik gabe ateratzea nahiago duten kasuetan.

Indarkeria matxista pairatu duten eta zerbitzu publikoren batera jo duten emakumeen hiru ibilbide posible daude:

Polizial-judiziala, sozio-sanitarioa (emakumeek salaketarik tartekatu ez dutenean eta Gizarte Zerbitzuetara edota osasun zerbitzuetara jo dutenean) eta *mistoa* (emakumeek salaketa tartekatzeaz gain Gizarte Zerbitzuetara jo dutenean, eta beraz, beste baliabide espezializatu batzuetara deribatzeke aukera daukatenean).

- Laguntza prozesuan zehar ikusi da emakumeen eta adingabeen artatze sistemak kasu askotan zatikatuta eta deskoordinatuta daudela⁴, eta esku-hartzearen zentralizazio falta horren ondorioz, ibilbide horietan emakumeen arrastoa sarritan galdu egiten dela. Gainera, emakumeak ahalduntze eta konpontze parametroak apenas jarraitzen dituztela egiaztatu da. Zerbitzu eta baliabide publiko sortak emakumeak zerbitzu baten onuradun gisa jasotzen jarraitzen du, eta ez eduki behar duten eskubide baten titular gisa, arreta integraleko sistema batek erdigunean beraien beharrianak eta, batez ere, beraien erabakiak jarri behar dituzten.

³ Atal hau 2018an zehar gizarte zerbitzuen erabiltzaileekin egindako laguntza prozesu baten emaitza da. 1. Eranskinean prozesuaren laburpen bat eta erabiltzaile horien ezaugarri batzuk aurki genitzake.

⁴ 2017an zehar garatutako diagnostikoan egiaztatu ahal izan zen denboraren poderioz Hernaniko Ertzaintzaren eta Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazioa gutxika hobetzen joan dela.

Zeintzuk dira ikuspuntu desberdintasun honen ondorioak? Emakumeen denborak, beharrianak eta interesak beti ez direla errespetatzen, eta esku-hartze pertsonalizatuak diseinatu beharrean laguntza eskaera baliabidearen ahalmenera egokitzen dela elaborazio handirik gabe. Honek emakumeek zerbitzuetako langileekin daukaten harremanean ere eragina dauka, ez baitira ausartzen hauei adieraztera ez daudela gustura jasotzen duten tratuarekin, denborekin eta eskaintzen zaizkien baliabideekin.

- Zerbitzuen zailtasunei langile batzuek hiru eremutan dauzkaten gabeziak gehitzen zaizkie: jarrerak, trebetasunak eta ezagutza. Azken aldian ezagutza eremua eta beronen esanahia gain dimentsionatu egin direla hauteman da, genero-indarkeriari buruzko ezagutzak eskuratze hutsa ez baita nahikoa berau pairatzen duten emakumeak artatu eta beraiekin lan egiteko. Zerbitzu hauetara jotzen duten emakumeek ezaugarri bereziak dituzte eta egoera anitzetan hel daitezke, bai egoera emozionala zein ekonomikoa, materiala, pairatutako indarkeria mota, eta abar. Ondorioz, zerbitzuen multzoa kasuen profil hain heterogeneo honekin lan egiteko prestatuta egon behar da.

- Artatze integraleko sistemak emakumeen beharrianak kokatu behar ditu erdigunean, eta batez ere, beraien erabakiak, artatzen dituzten langileengan paradigma aldaketa bat suposatzen duena. Ahalduntze ikuspuntu batetik ere landu behar da beraz, honen helburua autonomia bera izanik.

2.1. Zerbitzuen tratua eta eraginkortasuna

Aurrekoa kontutan hartuta, jarraian laguntza prozesu honetan parte hartu duten emakumeek erabili dituzten zerbitzuen ezaugarri esanguratsu batzuen laburpen bat azaltzen da:

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak. Artatze zentroak espezializatuak izan behar dira, nazioarteko Giza Eskubideen estandarrek adierazten duten bezala. Andoainen beharrezkoa da indarkeriari aurre egiten dieten emakumeen tratuan eta artapenean eredugarria izateko ibilbide eta esperientzia nahikoa daukan ekipo bat espezializatzea.

Horretarako garrantzitsua da ekipo horrek ondorengoak egiteko ahalmena edukitzea:

- Kasuen ikuskapena
- Talde artapenerako metodologiak sustatzea.

- Ama diren biktimen eta beraien seme-alaben beharrianak artatzea.
- Udaleko asistentzia juridikoa edukitzea edota asistentzia juridiko foralaren erabilera indartzea eremu horretako emakumeen artatzean aurrerapenak egiteko.

Sistema judiziala (Donostia eta Tolosako epaitegiak). Erreparazio forma gisa kontsideratuta badago ere, testigantza dokumentatuek berretsi egiten dute, paradoxikoki, sistema judizial batera iristeko nahia, askotan, eskubide urraketaren zati bat dela. Justizia ez da soilik Estatu obligazio bat izan behar giza eskubideen esparruan, biktimen prozesuan lagunduko duen berrezarkuntza ekintza bat izan behar da, emakumeek pairatzen duten prozesuaren gogortasuna baretuko duena.

Elkarrizketatutako emakume batzuen arabera genero indarkeria edota sexu abusuengatiko epaiketetan argitaratzen diren informeeetan emakumeen eta beraien seme-alaben testigantzak ez dira seriotasunez hartzen, eta sistema neutral bat izan ordez, aurreiritzietan eta genero estereotipoetan oinarrituta dago. Egoera honek emakumeen eskubideetara heltzea oztopatzen du, genero ikuspegia ez baita aplikatzen indarkeriaren zikloaren ulermena funtsezkoa den eremu batean, ezta giza eskubideen ikuspegia ere, ez baitira emakumeen arrisku adierazleak modu egokian baloratzen, eta askoz gutxiago beraien seme-alabenak.

Emakumeei rol jakin batzuk esleitzen zaizkie aldez aurretik biktima izan den pertsona batek nola jokatu behar duen suposatzen, eta beraz, salaketa jartzearen arrazoia benetakoa den edo ez aurretik juzgatzen da, edo zalantzan jartzen da ea emakumeek haien bikotekide edo bikotekide ohiak kaltetzeko asmoarekin beraien seme-alabak manipulatzeko dituzten.

Beraz, dagokigun ikuspuntutik, garrantzitsua da *Errestaurazio Justizia* (biktima indarkeria matxista gertatu aurreko egoerara itzultzea suposatzen duena) eta *Erreparazio Eraldatzailea* (indarkeria sorraraz ditzaketen egoerak aldatzea suposatzen duena, berriz gertatu ez dadin) desberdintzea.

Dokumentatutako testigantzek emakumeenganako bigarren mailako biktimizazioa ematen jarraitzen dela berresten dute, hainbat kompetentzia mailetan:

- Kode penalean oinarritzen den *sistema judiziala bera*: erabiltzen den terminologia sarritan emakume biktimentzako ulergaitza da.

- *Espazioa*: erkidegoko konpetentzia da, eta etsaitasunezkoa, hotza eta urrunekoa da. Honekin batera, apenas dago *Gesell ganbera*⁵ daukan barruti judizialik, Biktimen Estatutuari buruzko Legeak bereziki zaurgarriak diren biktimekin erabiltzera behartzen duenean, eta adingabeak hala direnean.
- *Itzulpengintza sistema*: estatu mailako konpetentzia. Emakumeei itzulpengintza sistemarik eskaini gabe jarraitzen du, atxilotuari eskaintzen zaion bitartean. Hizkuntzaren hesiak, terminologia juridikoarekin batera, sarritan emakumeek prozesu juridikoaren hainbat alderdi ez ulertzea dakar.
- Emakumeen *eskubideen aplikazio eta interpretazioa* zalantzan jartzea, interpretazio eta aplikazio hori bermatzailea izaten ari den ala ez.
- Kondenaren urraketa: Biktimek ez daukate abokatuen laguntzarik, biktima gisa deklaratzeko. Honen arrazoia da Administrazio Publikoaren aurkako delitu bat dela. Horrela, urruntze aginduen urraketa prozedurak dokumentatu dira, arrazoi honengatik emakumeak abokaturik izan ez duelarik eta kaltetu gisa deklaratu duelarik.

Testuinguru honetan emakumeak aurreko urteetan baino babes eskaera gutxiago ari dira eskatzen ⁶. Azpimarragarria da bestetik emakumeenganako indarkerian espezializatutako epaitegietan azken urte honetan eskaeren gutxiagotze handi bat erregistratu dela, 2017an baino %3,54 gutxiago, guardiako epaitegiak izanik emakumeenganako indarkerian espezializatutako epaitegiak baino %10 babes agindu gehiago esleitzen dituztenak.

Egoera honen ondorioz emakume askok urrunekoa eta arrotza ikusten dute salaketa bat tartekatzea bizi duten indarkeriatik ateratzeko. Andoaingo kasuan adibidez,

⁵ Gesell ganbera adingabeak edo delituaren biktimak modu eksklusiboan psikologoarekin edo artatzen duen langilearekin tratatzeko egokitutako gela bat da. Aldameneko gela batean, espia ispilu batekin banatuta, aldeek (epailea, fiskala, idazkaria, abokatuak) galdetegi ikuskatzen dute eta bertan parte hartzen dute psikologo edo langilearekin daukaten komunikazio batekin, mikrofono txiki baten bidez. Deklarazioa grabatu egiten da eta aurrez osatutako frogak gisa geratzen da, biktimak ahozko bistan errepikatzea eta bere ustezko erasotzailearekin kontaktua edukitzea ekiditeko.

⁶Etxeko eta Genero Indarkeriaren kontrako Behatokia, 2018ko lehen hiruhilekoari dagokiona.

laguntza prozesuan parte hartu duten hiru emakumek salaketa gehiago ikusten dute arazo berri baten gisan indarkeriaren irteera moduan baino.

Arreta psikologikoan espezializatutako zerbitzu forala. Biktimaren indarkeriatik ateratzearen eta gizarte estigma gainditzearen prozesuan, ongizate psikologikoa bere zentzu zabalean lehentasuna da. Indarkeriari aurre egin dioten emakumeek garrantzia handia ematen diote beraien ongizate psikikoari honek beste beharrizan batekin topo egiten dutenean, hau da, nahiz eta emozionalki ondo sentitzen direla adierazi, erronka berrien aurrean gai psikologikoetan espezializatutako babes edo laguntzaren beharra erakusten dute, kasu askotan ez direlako ezinbesteko aldaketa garrantzitsuei heltzeko gai sentitzen oraindik beren buruarengan daukaten segurtasun faltagatik. Jada beraien erasotzailearengandik banaketa edo dibortzio prozesu batean dauden emakume askok ere autoestimu baxua, erabakiak hartzeko gaitasun falta, erruduntasun sentimendu orokortua edo baita erasotzailearenganako menpekotasun emozionala ere erakusten dute oraindik.

Horregatik tratatu txarrak jaso dituen emakumearen sintomen kontrolean soilik zentratzen den tratamendu psikologiko bat ez da nahikoa⁷.

Aplikatu behar den esku-hartze psikologikoan oso garrantzitsua da emakumeek daukaten **zirkunstantzia partikularrak** kontutan hartzea, beraien kasuetara egokitzen diren estrategiak bermatzeko. Adibidez, erasotzailearekin jarraitzen badute edo arrisku egoeran badaude, funtsezkoa da **segurtasun neurriak** azpimarratzea (eraso baten aurrean eman behar dituen pausuen berri ematea, laguntza eskatzera zein lekutara jo dezakeen argitzea...), eduki ditzakeen arriskuak nabarmentzea, eta abar. Halaber, esan behar dugu kasu hauetan **esku-hartzea konplexuagoa dela**, emakumearekin lantzen diren estrategia batzuk erabilgarritasun mugatua izan dezaketelako erasotzaileak ezarritako kontrolaren aurrean.

Hautzaroan gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua. Artatze psikologikoa eskaintzen zaie genero indarkeriaren edota sexu abusuen biktima diren adingabeei, baina beraien aburuz ez da egokia modu zatikatuan jardutea (artatze psikologikoa emakume/emazteari alde batetik eta

⁷ Esku-hartze psikologikoa ebaluatu eta planifikatzeko orduan Duttonek (1992) proposatutako tratatu txarren aurreko erantzun eredua bereziki egokia dela dirudi.

adingabeari bestetik eskainita), familia sistema oso bat bere osotasunean artatzea litzateke egokiagoa, eta hortaz emakumearen ahalduntzea garatzea babes sistemaren parte ere bada. Jarduteko modu honen ondorioz, familia baten barruan erasotzaile bakar baten eskutik adingabeenganako genero indarkeria eta bestelako sexu abusuak egon diren kasuetan, bai amarekin zein bere seme-alaba adingabeekin esku-hartzea egiteko itxaron zerrenda luzatu egiten da (nahiz eta zerbitzu foralen arabera biak ere indarkeria matxistaren biktima gisa aitortuta egon), berehalako artatzea behar duten kasuak direnean.

Andoingo ahalduntze eskola. Baliabide hau emakumeen ahalduntzea eta autonomia sustatzeko funtsezko espazioa da, antzeko bizipenak izan dituzten emakumeekin eta indarkeria matxistaren biktimekin kontzientziazio eta elkartasun prozesu bat. Eskolako kurtsoetan parte hartzearen esperientzia funtsezkoa da beraien indarkeriatik ateratzeko prozesuetan, harrera taldeak aurkitzen dituztelako eta entzumenerako eta elkartrukerako espazio bat delako.

Osasun Zentroa: Elkarrizketatutako emakumeek azpimarratzen dute intimitatea, konfiantza eta profesionaltasuna dagoen espazio bat dela, eta bertara arrazoi anitzengatik jotzen da, batez ere lehen mailako atentziora. Hala ere, emakume biktimek Osasun Zentroarekiko pertzepzio ona eduki arren, eta nahiz eta bertara maiztasun erlatiboarekin jo, eta beraz indarkeria kasuen seinaleak hautemateko eta horietan sakontzeko aukerak zabaldu, errealitatea bestelakoa da. Lehen Mailako Arretako kontsultek apenas lortzen dute beraien erabiltzaile emakumeen indarkeria matxista errealitatea hautematea.

Horrela, Osasun Zentroetan urtean hautemandako kasu berriak Epaitegietan tartekatzen diren salaketa kopuruaren %10 inguru dira, baliabide hauetan dagoen hautemate baxua islatzen duelarik. Beste datu interesgarri bat aipatze aldera, osasun sisteman hautemandako kasuen artean %60a baino gehiago tratu txar fisikoak dira, bikote harremanetako indarkeria psikologikoa hauteman gabe eta beraz erregistratu eta beste zerbitzuetara bideratu gabe utziz, indarkeria mota hau askoz ohikoagoa denean.

Hautemate eta erregistro baxu honen arrazoi nagusiak batez ere bi hauek dira: alde batetik osasun langileek daukaten denbora falta kasuan sakontzeko edo beranduagoko zita bat jartzeko, susmo baten aurrean denbora gehiago eskaintze aldera. Bestetik, osasun mentaleko arazo argiak (hala nola depresioa, insomnia

edota antsietatea) indarkeria matxistarekin erlazionatzeko formazio falta. Honen ondorioz, emakumeentzako egokiagoak diren beste zerbitzu batzuetara (indarkeria matxistan espezializatutako artatze psikologikora, besteak beste) bideratu ezin izateaz gain, emakume biktimak neurritz kanpo medikatzen dituzte kasu askotan.

3. ERREPARAZIO PRINTZIPIOA ETA KONPROMEZU POLITIKOA

Zerbitzu publikoen erabiltzaileekin diagnostiko hau egin eta gero, arretan Aurrera pausoak emateko hurrengo neurri hauek proposatzen dira:

Abiapuntu gisa balioko duen erdiguneko ideia gisa, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen erreparazio eskubide eta egintza ezin da emakumeen artatzeko azken pausura mugatu, biktimen arreta prozesu guztian **zeharkako ikuspegi** bat eduki behar baitu.

3.1. Esku-hartze indibiduala

INDARTZAILEA izan eta *ERREHABILITAZIOA* ahalbidetu behar du

Beharrezkoa den asistentzia medikoa, psikologikoa, juridikoa edota soziala barneratzen da, bai biktima zuzenarentzako zein bere biktimizazioaren ondorioak jasan dituzten ingurukoentzako, adingabeak bereziki. Helburu indartzailea artapen prozesu osoan kontutan izatea lortzeko emakume biktimen sarbideak gehitzea garrantzitsua izango litzateke, soilik Ertzaintza eta Gizarte Zerbitzuetara mugatu beharrean; eta baita, zerbitzu guzti hauetan emakumeak ez estigmatizatzea biktima izatearen gainean dauden jokatzeko, bizitzeko edota izateko aurre iritzien ondorioz.

Aldi berean, artatzetik pertzepzio eta auto pertzepzioa landu behar da, emakumea ez izateko soilik baliabide baten hartzailea, eskubideak berrezarri behar zaizkion biktimizatutako emakume bat baizik.

INDEMNIZAZIO EKONOMIKOA aurreikusi behar du

Eragindako kalteekiko eta galdutako aukerekiko proportzionala den konpentsazio ekonomikoa izateko duten eskubidea onartu behar da emakumeekin batera. Beharrezko asistentzia eskuragarri izatea indemnizazio ekonomiko baterako eskubidea lortzeko, beraien kasuan, pairatutako kalteengatik egokitu ahal zaiena. Bizirik ateratzen diren emakumeek, indarkeriatik eratorritako ondorioen berezitasunagatik edota larritasunagatik artapenerako eta berreskurapenerako baliabide-sarean erantzun egokia edo nahikoa aurkitzen ez dutenean, osasun-tratamendu egokiak finantzatzeko laguntza osagarriak jaso ahal izango dituzte. Bestalde, konpentsazioa, zentzu hertsiki ekonomikoan, ez da nahikoa oraindik; bereziki beste indarkeria batzuen biktimek jasotzen dituzten laguntzekin alderatuz gero⁸.

ESKUBIDEAK LEHENGORATZEA bideratu behar da

Biktima giza eskubideen urraketa aurretik zegoen egoerara bueltatzean datza⁹. Honen helburua ez da emakumeak beraien giza eskubideen urraketa gertatu aurreko egoerara itzultzea, baizik eta egoera horretatik ateratzea ahalduz prozesuen bitartez; esaterako, biktimen elkarte batzuek bultzatzen dituzten moduko ahalduz prozesuak, non, eta nahiz eta soilik biktimez osatuta ez dauden elkarteak izan, hauen alde lan egitea erraztean den.

3.2. Esku-hartze kolektiboa

Prozesuan komunitatearen parte hartzea ere biktimaren erreparazio sozialaren zati gisa ulertu behar da. Bitartekotzan parte hartzen duten aldeek biktimaren eta erasotzailearen inguru hurbilenaren zati bat osatzen dutela kontuan hartzen badugu, komunitatea – herria – ere erantzunkidetu egin behar da indarkeria matxistaren aurkako borrokan, arazo kolektibo gisa ulertuta. Gizarte erreparazioaren fase

⁸ Indarkeria matxista indarkeria terrorista baino 10 aldiz gutxiago indemnitzatzen dela ondorioztatzen da bi informetan (*Compensación a las víctimas de delitos violentos en España: distintos raseros*, M. Daza Bonachela, eta MJ. Jiménez Díaz eta *Paralelismos entre terrorismo político y terrorismo machista*)

⁹ *Erreparazio eraldatzaile* kontzeptua bultzatzean datza, *lehengoratzeko justiziaren* aurrean, honek soilik pertsona urraketa gertatu aurreko egoerara itzultzea bilatzen duena, aurreko egoera hori bera ere agian jada diskriminazio egoera bat zenean.

honetan erronka bat ere agertzen zaigu, indarkeria matxistaren “biktima” kontzeptuaren gizarte estigma ezabatu behar baita.

Emakumeen *ASOZIAZIONISMOA* bultzatu behar da, eurek nahi duten bezala

Bizirik ateratzen diren emakume taldeei egiten zaien laguntasun eta babes lanean datza, lehengoratzeko prozesuaren baitan. Ikuspuntu feministatik, emakumeenganako artatze zerbitzuek gizarte eraldaketa baten parte izan behar dute, bai komunitatean txertatuta zein indarkeria matxistaren bizirik atera diren biktimentzako zerbitzu sare espezializatu – ez derrigorrez zerbitzu publiko – baten bitartez, emakume elkarteetan edo ahalduz eskolen bitartez, emakume Etxeak etab.

Lehengoratzeko prozesu honetan, bizirik atera diren emakumeen elkarteek garrantzi berezia hartzen dute biktimen ahotsa aurkitzen, indarkeriatik ateratzen, elkar ulertzen eta elkarri beste modu baten begiratzea lortzen laguntzen duten espazioak baitira; gainera, emakumeek (nahiz eta bakoitzak bere historia izan) euren arazoa ez dela zerbait eskusiboa ikustea ahalbidetzen du.

Instituzioen eginbeharra da espazio hauek diru-laguntza publikoz hornitzea, horrela, elkarte edo entitate bakoitzak emakume askori laguntzeko daukan ikuspegi espezifikotik artatu ahal izateko. Izan ere, emakume askok ez dute nahi instituzio publikoekin kontaktuan egon, eta beren beharrezan eta helburuen arabera artatuak eta erreparatuak izateko eskubide berbera daukate.

Berriki egindako ikerketek agerian utzi dute tokiko berdintasun kontseiluetan bizirik ateratako emakumeek eta emakumeen erakundeek daukaten presentzia bultzatzeak, non, emakumeek esperientzia propioei buruz hitz egiten duten, autoritate handiagoa daukate sistemari kritika egiteko erantzunik jaso gabe.

3.3. Esku-hartze publikoa

AITORPENA bermatzea

Kontakizunen eta biziraun duten emakumeen esperientzia anitzen hedapen publikoa bultzatu behar da, baita beraien ekintza kolektiboak edota hildako emakumeenganako oroitzapen eta omenaldi ekitaldiak ere.

ASEBETETZEA bermatzea

Erreparazio forma honetan barneratuko lirateke Giza Eskubideen testuinguruaren barneko adierazpenak, profesionalak erreparazioaren eta genero ikuspegiaren garrantzia uler dezaten. Hau arlo politikotik bultzatu behar da eta ekintza planetan eta aurrekontuetan islatu behar da.

ERREPIKATUKO EZ DENAREN BERMEA bultzatu

- Udalerriko instantzietatik erasotzaileenganako gaitzespen konpromisoa indartu.
- Erasotzaileekin lan neurri zehatzak, hau da: Erasotzaileekin esku-hartze baliabideak, indarkeriaren errepikapenik ezaren helburuari laguntzeko asmoz.
- Protokoloa sinatzen duten instituzioek dagokion epaitegiarekin bitartekaritza lanak egitea, gutxienez, emakumearenganako indarkeriaren errepikapenik ez gertatzearen eskubidea bermatuko duen babes aginduak adosteko; horrela, emakumeak berreskurapenarekin jarraitu ahal izateko.
- Abusuen errepikapena ekiditeko beharrezko babesak eduki, babes polizialaren tituluan aurreikusi bezala.
- Abusuen errepikapena ekiditeko beharrezko babesak eduki, babes polizialaren tituluan aurreikusi bezala.

4. ERANTZUN PUBLIKOKO PROTOKOLOA

Arretaren koordinazioa hobetzeko lan teknikoa babesteaz gain, Andoaingo politikariek indarkeriarekiko zero tolerantziaren kultura sustatzera konprometitzen dira. Hori, biktimak babesteko egintza erreparatzailetik abiatuko da, eta hori, hurrengo helburu hauek dituen protokoloan ezarriko da:

- Udalaren **erantzun integrala** eta garbia egituratzea, eta erakundearen eta erakundea osatzen duten pertsonen jarrera sendo eta tinko proiektatzea.
- **Efizientzian** irabaztea indarkeriari ematen zaion erantzun publikoari dagokionez, erakundeen koordinazioa optimizatzea ahalbidetuta.
- Gizarte eragileen eta herritarren **adierazpen bideak** sendotzea emakumeen kontrako erasoen aurreko **erantzun** publikoari dagokionez, beste jarduera batzuen osagarri jardunez.
- **Udalaren gaitzespen publikoa** erakustea indarkeria matxista mota guztiei eta biktimei laguntzeagatik edozein indarkeria pairatzen duenari.
- **Sentsibilizazioan** laguntzea eta **zero tolerantziaren** kultura sendotzea indarkeria sexistaren adierazpen ororen aurrean, edozein esparrutan eta indarkeria horren formetako edozeinetan.
- Edozein eraso matxistaren **biktimari arreta** ziurtatzea, zerbitzuak eta baliabideak direla medio. Zerbitzu eta baliabide horiek foru eskumeneko zerbitzu espezializatuak eta udal zerbitzuen arteko koordinaziopean emango dira.
- Emakumeen **eskubideak eta askatasuna indartzen** laguntzea, emakumeen segurtasuna bermatuz beldurraren kulturarik sorrarazi gabe.
- Biktimak errudun egingo ez dituen eta erantzukizuna erasotzaileei egotziko dien **indarkeria matxistaren tratamendua** bultatzea hedabideetan.

4.1. Indarkeria matxista kasuen aurrean jarraitu beharreko erantzun publikoari buruzko irizpideak

Erantzun sendoa

Indarkeria matxistarekiko zero tolerantziaren kultura eraikitzeko ezinbestekoa da salaketan argi eta erabakitasunez jokatzeko, eta edozein indarkeria ekintza ukatzen, normaltzen, minimizatzen edota justifikatzen duten argudio eta adierazpenak sistematikoki desmuntatzea. Indarkeriaren adierazpen guztiak dira arbuigarriak.

Oro har, gertatzen diren erasoaren aurrean ematen den erantzun publikoa bideratu behar da emakumeen kontrako indarkeriazko jarrerak ez direla toleratzen erakustera. Zorrotz eta inolako zalantzarik gabe adierazita, ez dago inpunitaterik ez isiltasun legitimatzailearik erasotzaileentzat, beti errespetatuko da euren errugabetasun presuntzioa eta ez da zalantzarik onartuko biktimaren kontakizunaren sinesgarritasunaren gainean.

Errespetuzko erantzuna

Gerta daitezkeen egoeretan are sakonagora joz, biktimek, sarritan, bere burua ez erakustera jotze hori biktimen gainean ezartzen den estigma sozialaren sintomatza uler daiteke batetik eta, bestetik, norberaren babeserako neurritzat; horrenbestez, erakundeek errespetatu eta bermatu egingo dute hori. Ezinbestekoa da hori aintzat hartzea, alde batetik, berekin baitakar erantzun publiko, egoki eta proportzionala kasuen banakako analisisian oinarritzea, errespetu eta enpatia arrazozi begi-bistakoan indarrez, eta bestetik erantzun horrek herritar guztientzako elementu hezitzaile bihurtu nahi baitu; beraz, berehalakotasunaren presioaren aurrean blindatuta jardun behar da. Biktimari ematen zaion arreta berehalakoa izan behar da; horrela, biktima eta beraren ingurua zaintzeak lehentasuna izango du.

Inpunitatea gelditzea

Indarkeria sexista gertatzen den kasuetan, erantzukizuna erasotzaileena da. Inoiz ez biktimena. Eta inpunitaterik izan ez dadin, garrantzitsua da gizarteak eta erakundeek tinko erakustea erasotzaileen ekintzek eragiten duten arbuio soziala. Horregatik, erakundeek bultzatuko dituzten adierazpen publikoen irismenaren inguruko erabakia hartu behar denean, baloratu egingo da adierazpen publiko horrek murriztu edo brida dezakeen erasotzaileen inpunitatea indarkeria sexista gertatutako kasuetan; kontuan harturik, betiere, batzuen errugabetasun presuntzioa zein biktimekiko errespetua.

Berbiktimizazioa saihestea

Indarkeria matxistaren sorburu estrukturala dela eta, sarritan, indarkeria matxista kasu bat denean, ez da behar bezala jarduten. Biktimak kuestionatu egiten dira, edo jasandako indarkeriaren arduradun bihurtzen ditugu. Eta fenomeno horren eraginez, maiz biktimak errudun sentitzen dira. Horregatik, garrantzitsua da mezuetan gogoratzea indarkeriaren erantzukizuna indarkeria baliatzen dutenena dela, ez biktimena; eta saihestu egin behar da biktimak estigmatizatzen dituen mekanismorik martxan jartzea.

4.2. Erantzuna eraikitzeo oinarriak

Salaketaren eta indarkeriaren kontrako arbuio eta gaitzespenaren garrantziari buruzko kontsiderazioak, azalpen honetan jada aipatuak, zalantza gabeak dira erabat. Alabaina, Protokolo honek sustatzen duen erantzun instituzionalak oinarri dituen jarduera printzipioek Protokolo hau txertatzen zaion arreta sistemaren erdigunean kokatzen dute biktimaren eta beronen inguruaren babesa.

Horregatik **oinarrizko printzipio** batzuk ezartzen dira, honakoak:

- **Biktimei zuzendutako lehentasunezko arreta:** Eraso sexista bat ikusten edo izan dela jakiten den bakoitzean, lehentasunezko jarduera biktimei arreta ematea izango da, eta horien esku jarriko dira beharrezko bitartekoak. Aipatu moduan, biktimei arreta egiteak hartzen dituzten erabakiak errespetatzea ere badakar berekin.
- **Erantzun bizkor, koordinatu eta eraginkorra:** Eraso sexista baten berri dugun bakoitzean, erantzuna bizkorra eta koherentea izango da, arazoan murgildutako erakunde guztiekin koordinatua, eta eraginkorra, hau da, Protokolo honetako helburu guztiak betetzera zuzendua.
- **Erasotzaileak arbuiatzea:** Indarkeria matxista beti da indarkeria erabiltzen duenaren erantzukizuna eta, beraz, erasoak eta erasotzaileak arbuiatzeko eta gaitzesteko erantzuna sustatuko da.
- **Informazio konfiantzazkoa:** Gizarte alarma saihesteko arduraz jokatu behar da, gertaerei buruzko informazioa kontrastatuta. Oinarri sendorik gabeko erantzun batek ez dio zero tolerantziaren kulturari mesede egiten, eta kaltegarria izan daiteke biktimentzat zein ustezko erasotzaileentzat.

- **Informazio konfidentziala:** Biktimaren datuak eta erasoak nola gertatu den adierazten duten xehetasunak konfidentzialak dira eta 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoak¹⁰, babesten ditu. Hori dela eta, mota horretako informazioa biktimekiko arretaren ardura duten teknikarien esku bakarrik egon daiteke. Beraz, erantzun publikoa antolatzeke behar den informazioak datu pertsonalak ekidingo ditu (biktimaren izen-abizenak, helbidea...), eta baita ere erantzun publikoa prestatzeko ezinbestekoak ez diren erasoari buruzko xehetasunak.
- **Prebentziozko jarduera:** Egunero egiten den indarkeria sexistaren prebentziorako lana areagotu, indartu egingo da erasoren bat gertatzen denean, batez ere biktimen inguruan, biktimak estigmatizatzea eta errudun sentitzea saihesteko eta sentsibilizazioa sendotzeko.

4.3. Indarkeria sexistaren aurkako kultura suspertzea

Udalaren erantzun publikoak, indarkeria matxistaren biktimen aldeko erreparazio moduak direnez gero, indargabetu egin behar dute indarkeria mota honen aurka aurrerapausorik ematen ez delako ideia hori, eta neke sozialari aurre egin behar diote.

Horretarako, biktimen babeserako neurriak indartzeaz eta euren segurtasuna lantzeaz gain, hurrengo erramintak erabiltzea komeni da:

- Udalerriko espazioen erabilera indarkeria matxistaren aurkako jarrera erakusteko.
- Udalerrian askotariko seinaleak jartzea, adierazteko udalerrri horretan berdintasun babestu eta indarkeriaren aurka egiten dela.
- Udalerrian seinale ezberdinak jartzea, adierazteko udalerrri hori emakumeekin adeitsu eta atsegina den espazio bat dela.
- Udalerriko espazioak erabiltzea, informaziozko materialak banatzeko eta indarkeria sexistaren aurkako irudi eta mezuak publikatzeko.
- Gaitzespen instituzionaleko kontzentrazioak.
- Udalak, Mankomunitateak edo eskualdeak indarkeria sexista baten aurkako

¹⁰<https://www.boe.es/boe/dias/1999/12/14/pdfs/A43088-43099.pdf>

kontzentrazio bat lan orduetan egitea erabakitzen duenean, deialdira udaleko langileak ere deitzea.

- Agerraldi publikoak, notak eta prentsaurrekoak.
- Irakurketa eta mezu hezigarriak udalerriko web guneetan.
- Udalerriko jarduerak bertan behera uztea dolua erakusteko.

4.4. Erantzun eszenatokiak

Protokoloa maila desberdinetan aktibatzen da eraso sexistatzat har daitezkeen gertaera guztien aurrean. Horretarako, erantzun eszenatoki desberdinak ezartzen ditu, eskubide urraketaren larritasunaren arabera.

Kasu guztiak salagarriak dira, guztiek jasotzen dute erakundeen eta herritarren arbuioa, eta gaitzespen adierazpenerako tresna sistematizatuak eskaintzen dira.

0. eszenatokia

Hurrengo kasuetan:

- Emakume bat bikotekideak edo bikotekide ohiak hiltzen duenean, etxeko tratu txar egoera baten ondorioz.
- Emakumea sexu eraso bidez erailtzen dutenean.

Emakundek etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa¹¹ jartzen du martxan. Udalak Emakundek koordinaziorako proposatutako orientazio eta moduak jarraituko ditu.

1. eszenatokia

- Bikotekideak, bikotekide ohiak, senide batek, ezagun edo ezezagun batek emakumea erailtzea edo erailtzen saiatzea.
- Genero indarkeriaren biktima den emakume baten seme-alabak hiltzea edo hiltzen saiatzea.
- Indarkeria sexistaren biktima hiltzea, denbora bat lehenago izandako eraso baten ondorioz.

2. eszenatokia

- Biktima den emakumearen osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten lesio larriak

¹¹ Ikusi II. eranskina

eragin dituen erasoak.

- Sexu erasoak, sexu abusua eta erasoarekin batera izan daitezkeen beste zertzelada larrigarri batzuk, hala nola bahiketa, eraso kolektiboa, konortea galaraztea edo konorte galtze hori erasotzeko baliatzea.
- Sexu jazarpena edota jazarpen sexista laneko edota irakaskuntzako esparruan edo beste esparru batzuetan, jazarpen hori denboran zehar errepikatze aukera dagoenean.
- Erasotzailea edo erasotzaileak funtzionario publikoak, segurtasun gorpuetako langileak edo udalerriko eragile esanguratsuetako langileren bat den kasuetan edota agresioa behin baino gehiagotan ematen bada erasotzaile beraren eskutik (biktimaren bikote edo bikote ohia izan edo izan ez den kasuetan), leku berean eta hemen aurreikusten ez diren egoeretan, delitua larriagotzat hartu ahal izango da gerora begira.
- Erasoa espazio publikoetan gertatzen direnean, beste pertsona batzuen aurrean.

3. eszenatokia

- Lesio gabeko edo lesio oso larririk gabeko eraso bat, zeinak biktimaren ezaugarriengatik, udalerriatik edo beste edozein egoera dela eta alarma sozial berezi edo garrantzitsutzat jo daitekeena eragin duenean.
- Balorazio bat egin ondoren eskubideen aurkako urrapen berezitzat jo eta arestian aipatu ez den edozein egoeraren aurrean.

4.5. Protokoloaren hedapena 1, 2 eta 3 eszenatokietan

1. Pausoa. Protokoloa aktibatzea

Protokoloa beti aktibatuko da hurrengo kasuetan:

- Andoainen gertatutako kasuetan.
- Andoainetik kanpo gertatu direnean gertaerak, baina biktima edo erasotzailea udalerrian bizi edota bertakoa denean.
- Aurreko bi kasuetan biktima defendatzen edo horri laguntzen joan eta horren ondorioz erasotua izan denean udalerriko norbait (naiz eta gertaera udalerrian ez gertatu).

2. Pausoa. Biktimarekin eta haren ingurukoekin kontaktua

Emakume biktimen arretan lan egiten duten zerbitzuen arduradunen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Departamenduaren **arteko koordinazioa ezarriko da** biktimarekin edo familiarekin harremanetan jartzeko (betiere biktimak ezin badu erabaki eraila izan delako, ospitaleratuta edo shock egoeran dagoelako) eta bi erakundeek dauzkaten arreta baliabideak eskaintzeko.

Biktima Udaleko edo Aldundiko zerbitzu batekin harremanetan egon bada edo badago, arreta hau zabalduko da erasotik eratorritako beharrianak asetzeko. Adin txikikoen kasuan, lehenik eta behin familiarekin edota legezko tutorearekin hitz egin beharko da babesa eskaintzeko eta biktimarekin harremanetan jartzeko.

Biktimari edo bere senideei jakinaraziko zaie Udalak gertatutakoaren aurrean horri aurre egiteko akzioak egingo dituela. Kontzentrazio baterako deialdi bat egiteko aukeraren berri emango da. Biktima edo bere familia ez badator bat edo zalantzak baditu biztanleria biltzen duen ekintza bat egiteko, erreakzio hori baloratuko da udalerrri bakoitzean dagokion egituran, baina ez da beti zertan erantzun publikoa bertan behera utzi behar.

Kontuan izan behar da erantzunaren urgentziak ezin izango duela beti biktimaren edota bere familiaren erreakzionatzeko behar eta gaitasunekin bat egin, beraz, ezin zaie erantzun publikoa emateko arloan hartutako erabakien erantzule egin. Komunikazio errespetutsua izango da, baina erantzun publikoa ematearen erabakia autoritate foral, udalerrikoei eta autonomikoei dagokie.

Aipatutakoa, baliagarria da biktima adin txikikoa denean eta prozesuan zehar bere familiarekin edota tutorearekin egiten denean komunikazioa.

Honek guztiak ez du alde batera utzi behar biktimaren eta bere familiaren garrantzia, eta ezinbestekoa da inguruaren eta udal eta foru politikarien laguntasuna sentitzea.

3. Pausoa. Erasoaren gaineko informazioa biltzea

Protokoloa aktibatzen duen egitura udalerrikoa edo forala den kasuetan, bilerak egingo dira edota telefono bidezko edota beste bide elektronikoko baten bidezko komunikazioa ezarriko da, erasoaren gaineko informazioa biltze aldera:

- Informazio garrantzitsua duten udal arloetako arduradunekin.
- Hernaniko Ertzaintzaren ertzain-etxearen arduradunekin.
- Donostiko ESIko (Erakunde Sanitario Integratuko) arduradunekin, eta Osakidetzaaren iritziz informazio garrantzitsua eman dezaketen langileekin.
- Foru Saitetako zuzendariekin edo horiek eginkizun hori delegatzen dieten pertsonekin.
- Informazio garrantzitsua izan dezaketen mugimendu feministarekin eta berdintasunaren aldeko emakume elkarteekin.
- Kasuaren informazioa eman dezaketen beste pertsona batzuk.

Informazioa kontrastatzeko bilerak, egituraren erantzulearen irizpidearen arabera, eragile inplikatu guztiekin batera edota horietako batekin edo batzuekin banaka egin ahal izango dira.

Garrantzitsua da adieraztea, jaso beharreko informazioaren konfidentzialtasuna kontuan hartuta, arretaren ardura duten udal teknikariei (gizarte zerbitzuetako teknikariak) edo arreta protokoloak koordinatzeko ardura dutenei (berdintasun teknikariak) dagokiela informazio hori jasotzea eta erabaki mailetara helaraztea (Bozeramaileen batzordeak, udalerrri bakoitzak izendatutako batzorde edo egiturak), erantzun publiko egokia balioetsi eta diseinatu dezaten.

4. Pausoa. Eragile sozialekin koordinatzea (mugimendu feminista, bestelakoak...)

Gomendagarria da mobilizazio edo elkarretaratzeen deialdiak udalerriko eragile sozialekin era koordinatuan egitea, bai deialdi bateratuak egiteko, bai udalerrian egindako deialdietara batzeko edo, gutxienez, bi deialdiak aldi berean ez gertatzeko.

5. Pausoa. Bozeramaileen Batzordearen premiazko deialdia

Erasoaren balorazioa egin eta gero, udalerriak Bozeramaileen Batzordea deituko du adostutako akzioak onartzeko eta kontzentrazioaren deialdia erabakitzeko.

Paso 6. Udal eta foru mailako erantzuna

Arestian aipatu ditugun elementu guztiak aintzat harturik, dagokion egiturak urratu diren eskubideen larritasun maila, gizartean izandako eragina eta erasotik eratorritako beste elementu batzuk baloratuko ditu, horrela, erantzun publikoaren proposamena garatu ahal izateko.

Aparteko garrantzia duten kasuak (4. eszenatokia)

Euskal Herrian edo beste edozein eszenatoki geografikon hiltzea edo ez edo kalte fisikoa eragin dezakeen indarkeria egintza esanguratsuren bat gertatuz gero, udalak (bere edo udalerriko erakunde baten edo gertaera gertatu den lekuko erakunde baten eskariz) hurrengo neurriak hartuko ditu:

- Gertatutako egoera aztertuko da bere larritasun bereziagatik edo kasuaren garrantziaren arabera jokatzeko. Garrantzitsua izan daiteke ondorioengatik, hedabideetan izan duen inpaktuagatik, eragilea/k ezagunak izateagatik, izan ditzakeen ondorio sinbolikoengatik, emandako epaiarekin bat ez egiteagatik edota planteatzen den beste edozein arrazoiengatik.
- Kasuaren analisiaren araberrako erantzun eta koordinazio neurriak adostuko dira.

1. ERANSKINA

EMAKUME BIKTIMEN LAGUNTZA LANEKO PROZESUA: ERABILITAKO METODOLOGIA

Hautaketa irizpideak:

Lehen hautaketa irizpide gisa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan laguntza eskatu zuten emakumeek erasotzailearekin zeukaten harremana ezarri zen. Hasiera batean erasotzailea beraien bikotekide maskulinoa zen emakumeak soilik barneratu ziren, beraien arteko harreman legala edota bizikidetza kontuan hartu gabe. Azkenean emakume batenganako seme baten etxeko indarkeria kasu bat ere barneratu zen, artatu zuten zerbitzuetan berak izan zuen esperientzia diagnostikorako garrantzitsua baitzen.

Bigarren hautaketa irizpide gisa, jarraipena egingo zitzaien emakumeek ahalik eta profil heterogeneoena edukitzeko ahalegina egin zen: migratutako emakumeak, karga familiardunak, adin desberdinekoak edota indarkeria matxista mota anitzak pairatutakoak.

Hirugarren irizpide gisa, elkarrizketatutako emakumeak baliabide/zerbitzu desberdinetan artatuak egotea ezarri zen, baliabideen azterketa ahalik eta zabalena egiteko asmoz. Horregatik, nahiz eta hasiera batean jarraipena emakume bat edo biri egitea izan asmoa, geroago **bost** emakumeri egitea erabaki zen.

Azkenik, emakumeek elkarrizketatuak izateko zeukaten borondatea izan zen aukeraketako beste funtsezko irizpide bat. Bai aholkularitza taldearen eskutik egindako elkarrizketei erantzuteko borondatea zein beraien kasuko erreferentziako gizarte langilearen ausazko deiak jasotzeko prestutasuna.

Ebaluazio adierazleak:

Aztertutako kasu bakoitzaren informazioaren bilketa egoki eta sistematizatu baterako, txantiloi bat diseinatu zen. Tresna honek ebaluazio adierazle sorta bat zeukan aztergai kuantitatibo eta kualitatibo anitzak baloratzeko, bai erabiltzaileak berak zein erreferentziako gizarte langileak, indarkeria matxistari aurre egin dieten emakumeak artatzen dituen zerbitzu/baliabide bakoitzaren (munizipal, foral eta autonomiko) inguruan.

Era berean txantiloia atal desberdinetan banatu zen: Jarraipen aldagaiak, Adierazleak, Erregistroa eta Egiaztapen Iturria.

Jasotako informazioarekin, bai emakume erabiltzaileek zuzenean igorritakoa zein kasu bakoitzerako ezarritako gizarte langileek igorritakoa (aholkularitza taldearekin telefono bidez edota posta elektronikoz bidez), prozesuan parte hartu zuen emakume bakoitzeko fitxa bat egin zen, prozesu horrek zazpi hilabete iraun zuelarik (2018ko apiriletik azarora).

Laguntza-jarraipena egin zitzaien emakumeen erlazioa:

	Pairatutako indarkeria mota	Adina	Jatorria	Familia-kargak
1	Tratu txar fisiko eta psikikoak	70 urte	Bertakoa	3 seme adinez nagusiak
2	Tratu txar fisiko eta psikikoak eta bere gaur egungo bikotekidearen eskutik sexu abusuak bere seme nagusiari	33 urte	Maroko	Hiru seme (8 urte, 3 urte eta urtebete)
3	Tratu txar fisiko eta psikikoak	48 urte	Peru	25 urteko alaba eta 23 urteko semea
4	Etxeko indarkeria, semearen eskutik	85 urte	Bertakoa	Seme bat
5	Tratu txar fisiko eta psikikoak	19 urte	Bertakoa	Ez